

*R. P. Manuel Ugalde.*

# Las Escuelas Láicas

## Jaungoikorik gabeko eskolak

Juan B. de Larreta.



SAN SEBASTIAN  
Establecimiento Tip. de «El Pueblo Vasco»  
1910





R. 2917

N. 2930

L. 34401

ATV  
16786

~~21~~  
31

Jaungoikorik gabe-ko  
eskolen kontra  
Bergaran  
José santubaren egunez  
izan zan batzarrian  
Euskaldun utsei  
Azelaingo Nagusiyak  
euskeraz  
eginda ko itz-aldiya.

90  
/



1910-garren urtian.



Bergaran, Jaungoikorik gabeko eskolen kontra, izandutako batzarra.

## Carta del Sr. Arcipreste Cura de Tolosa

Querido Juan: En mi deseo de conocer lo que en euskera se había dicho contra las escuelas láicas, quise leer tu discurso de Vergara, y procuré los números de un diario de San Sebastián en que me aseguraron se copiaba. Para hacerte el flaco servicio que te ha hecho el tal periódico desfigurando por completo palabras y conceptos, hubiese sido mejor se hubiese abstenido de insertar tu trabajo, pues ni se concibe siquiera tamaño descuido.

Después me han proporcionado números de otro diario, del mismo San Sebastián, y de su lectura he conseguido formar idea aproximada de lo que en el indicado meeting dijiste, más sin quedar tampoco plenamente satisfecho, porque creí observar alguna omisión, puesto que había frases que no estaban redondeadas.

He sentido esto mucho. Los discursos erdéricos han venido bien copiados, ó por lo menos se han hecho buenos resúmenes de ellos, siendo así que en la mayor parte se veían fines, que, sin ser de suyo vituperables, eran por lo menos algo ajenos á las circunstancias del caso, mientras que el tuyo se ciñe perfectamente al asunto concreto de las escuelas, como tengo entendido se ceñía también el pronunciado antes en San Sebastián por D. Toribio Alzaga, en la misma lengua.

¿Habría tal vez dificultad en que uno y otro los publicáseis en hoja suelta, ó sea en forma de folleto? ¿Por qué no lo hacéis? Opino que sería bien sencillo eso; y te aseguro que no dejaría de ser útil. Indícale algo á don Toribio, cuando le veas.

Tu affmo.

*Patricio Antonio de Ormaiztegui.*

Tolosa 26 Marzo de 1910.



Lector:

No es una pieza literaria la que te doy, querido lector. No abrigo tampoco la pretensión de haber empleado en mi discurso contra las escuelas laicas un euskera correcto, ni al pronunciarlo intenté siquiera extremar la depuración en ciertas palabras que, euskerizadas por completo, hubieran sido quizás menos entendidas por la mayoría de los oyentes, que sus equivalentes usuales de cierto sabor erdérico. Me pareció que las circunstancias en que hablaba el día del meeting exigían generalizar en lo posible la comprensión en los concurrentes, más bien que ir buscando un purismo de lenguaje. Quizás hubiese procedido de un modo distinto en un escrito, pero se trataba de hablar, y hablar para que la generalidad de los que escuchaban nos entendiese desde luego.

Ni me imaginé que lo que aquel día decía en Vergara hubiese más tarde de ver la luz pública, y solo por instancias repetidas de ciertas personas me decidí á la transcripción en periódicos. Hoy que el señor Arcipreste Cura de Tolosa me induce á reproducir mi trabajillo en hoja suelta, me es imposible no acceder á sus indicaciones, por la razón sencilla de que dicho señor me trata desde mi niñez íntimamente, así como á mis cuatro hermanos, pues á todos nos conoció desde hace nueve lustros en nuestra casa natal, y vivimos con él por espacio de once años, sin haberse aún después interrumpido por un momento la primitiva intimidad, que por nuestra común afición á la lengua nativa ha sido todavía más estrecha. Con esto queda explicada la aparición de

este folleto, que en mi concepto, no merecía los honores de imprenta.

Por diferentes causas hube de abreviar en Vergara algún tanto lo que me proponía decir, y en especial porque había allí compañeros que deseaban se economizase tiempo, para poder regresar á sus familias enseguida de terminar el acto. He aquí lo que me impidió expresar todo lo que llevaba pensado y el dar lectura de algunas estrofas de una composición euskara publicada por un pariente mío hace ya largos años en la revista *Euskal-Erría*, y que copiaré ahora, añadiendo así bien una parte que suprimí en Vergara y que no ha aparecido en los periódicos.

Y perdona, lector carísimo, el tiempo que emplees en leer estas mis aclaratorias, así como también mi frase imperfecta en la expresión, teniendo solo presente la sincera intención de quien hubiera querido ofrecerte un trabajo más digno de nuestra lengua euskara. Valeas.


*Juan B. de Larralo-Azelain.*

Azelain 29 Marzo de 1910.



Euskaldunak gure eskoletan  
aurren aurrena izan, eta beti  
alashen izango ere deguna.  
ila zeñek galerazten digun!





## BERGARAN

José Santubaren egunian

---

### JAUNAK:

Baserritar, nekazari ta langille Gipuzkoatarrak!  
Jainkua ta euskera, bestek ez bezela, maite dituzuten  
Gipuzkoako langille, nekazari ta baserritarrak!  
Jaun abek deitu naute, ta emen natorkizute,  
nik bañon obeki emen bertan dauden askok egingo  
zuten lan batera.

Euskalduna naiz, baita nai ere! eta Jainkuari  
mesede au beti zorko diyot.

Jayo baño len ezaguera izan banu; munduban  
diran toki ta baztar guztiyak zer ta nolakuak ziran  
jakiñ izan banu; eta gure Jaun-Egilliak galdetu  
izan balit nun jayo naiko nuben, Euskal-erriya  
aukeratuko nuben, mendi tarte oyetan jayo  
nai nubela esango niyon.

Mesede aundi bat egin ziran beraz gure Jaungoikuak emen jayo erazotzearekin.

Bai.....

«Euskaldun jayo nitzan,  
Euskalduna azi,  
Euskera utsik amak  
Ziran erakutsi:  
Euskera laztan maite  
Zabiltz nigaz beti,  
Euskera ill ezkeru  
Ez det nik nai bizi.»

Ni nator bada Euskaldun utsentzat. Zubei, ta zubei bakarrik, nere itz motel eskasarekin zer edo zer ayazi nayian. Gaztelaniz dakizutenentzat, askoz ere ni baño gizon trebe ta jakintsubaguak, emen badaude, ikusi dezutenez.

Euskalduna naiz, eta euskaldunen errelijiyua maite biar, eta maite det: ez ordia biar ain bat. Maite dedan baño indar geyagorekin maite nayago nuke, geyago ta geyago maitetzez aseko enitzake; baño beintzat ori erakutsi dirate, ori ikasi det, orrekin bizi naiz, eta..... orrekin ill nai det: euskaldun eta kristau! Nekazariyak, lanetik bizi zeratenak, euskaldun katolikuak, ¿ez al dezute zubei ere beste ainbeste nai? Bayetz nago, ontan sendo naiz: ¡Jaungoikua ta euskera! ¡Euskera ta guziyen Jauna! Ori nai dezute, ori nai degu, beti ori naiko degu! ¿Ez al da orrela nekazari prestubak? Ez al da egiya langille ondradubak?

Asko sentitzen det, ez neregatik, baizikan zu-

bengatik, orañ sortu zaigun eskoletato ausi onetzaz ni baño azkarrago batek ez gaur euskeraz zubei itzegitia. Izentatu niñuten ni, galdetu zidaten etorriko ote nitzan, eta erantzuteko betarik eman ere gabe, nere izena paperetan ezarri zuten. Neregatik ajolik etzidan: beti prest nago barrenen daukadana esateko; baño gogo geyagoz egongo nitzan besteri entzuten, orañ itzegiten nagoen baño. Nayago baitet ikasi, erakutsi baño. Alashen ere dakidan pishka esango dizutet, eta nere laburtasuna barkatu.

¡Escolak! Jaungoikorik *gabeko* ta Jaungoikuaren *kontrato* eskolak eskeintzen dizkigute noski Madrildik, an agintzen jarri zaizkigun gizon oyek! ¿Bañan zer bidez, zer derechorekin ekarri biar dizkigute eskola oyek? ¿Nork askatu lezake iñor Jainkuaren legetik? ¿Nork eten lezake Egilliaren eta bere egituraren arteko lokarriya? ¿Zeñek iges egin lezake bere Jaunarengandik? ¿Zer da..... zer izan liteke gizona Jaungoikorik gabe? ¿Nori gogoratu zayo zentzugabekeri ori?

Ez da au gaurko kontuba; euskaldun ondradubak; ez da ausi au orañ sortuba, baizik aspaldichokua. Gaur agiri da garbi, gaur datorkigu larru gorriyan; bañan urtiak dira, urte luziak ala ere, eun ta geyago guchiyenez, *azi puzoitzu au* Españiyan sartu zala.—1808 garren urtian bidaldu zigun, oker ezpanago, Napoleonek auzoerritik ejerzitu bat. Beste asko tokiyaz bezela Españiyaz ere jabetu nai zuban, eta Españiyak eman ziyon Napoleoni aurreneko jipoya; emen artu zituban lendabiziko kaskarrekuak, eta andik





Barruzan. Jaunonkorik nabeko eskolen kontra, izandutako batzarra.

lashter asi zan jeshten ta jeshten bere aundinaya; andik lashter Napoleon erori zan; ez zan lengua.

Bañan Españiyak Napoleonen soldaduak menderatu ta bota bazituben, Praintziko legia, Praintziko dotriña beretu zuben, eta *liberalak* beren lanari ekiten asi ziran. Jakiña da bat-batetan guziya ezingo zutela; urak ere, oso berotu baño len epeldu biar du ta. Asi ziran Kadizen ta Madrillen batzubek prantzesetatik ikasitako gauz-ederrak erakutsi nayian. Gobierno batek eta bestiak, lenbizi leun-leun, pithinka, ezer ezpazan bezela, *azi puzoitza* erein ziguten; — gero bazetozen beste Gobierno f'agintari gordinshiaguak; — oyen ondoren beste ausarditsubaguak.

Elizaren gauzak, aitzeki bat eta bestez saldu ziran; ezkillekin diruba egin zan, kaliz eta patenak Madrillko premiyak estaltzeko biar omen ziran; oraindik goguan izango dute noski askok zer gertatu zan Burgosko katedralera gauz eske, an zeuden eliz-gauzak artzera zijuan, Gobernari batekin. Anchen, eskallerak iyuaz zijuan bezela erriko jendiak ekin ziyon eta Gobernariya ill zuben. Jendiaren odolak geyegui sutu ezkeru, berriz ere orren antzeko gertakuntzak ikusi litezke.

Gobernari batzubek gaur, beste Gobernariyak biyar; batzubek agintzen orañ, geroshiago bestiak; ayek atera, oyek sartu; orañ epelcho, gero beroshiago; baña guztiyak *liberalkeriz* chertatubak; guztiyak *liberalak*, guztiyak dotriña batekuak; beñ pauso laburrian, beñ luziaguan, eun urte oyetan ibilli zaizkigu, alik eta egun abetan guziyak irakiten jarri diran arte. Eta noiz? Bartze-



lonan Ferrer ta *bere eskola* lagunak egindako li-  
kisheriyak ikusi, ta urrengo egunian.

¿Zeñ ote dira onenak oyen artian? Inor ez,  
guziyak liberalak! ¿Zeñ gaishtoenak? Eztakit, eta  
zubek ere ez! Guziyak gaiztuak, eta..... eta.....  
biar bada..... ishillenak, leunenak eta gaiztoago.

Dana dala: Jaungoiko *gabeko*, ta Jaungoiku-  
aren *kontrako* eskolak badatoz; badatoz bete-be-  
ian, baña lenchiago ere asiya ziran. ¿Ez al deri-  
tzazute? ¡Neri bai! Galdetu bestela mediku bati  
ta millari: ia beren eskoletan ez ote zayen eraku-  
tsi animaren kontrato dotriñik. Ia ez ote zayen  
nunbait erakutsi gizona ta chimuba odol bateku-  
ak dirala; gizona chimutik datorrela; len chimu  
zania zuben isatsa denboren denborakin labur-  
tubaz, metubaz, auldubaz, athubaz, juan zayola  
eta lengo chimuba gaur gizon agiri dala. Galdetu  
eskola batzubetan kondaira ikasi dutenei zer  
zentsugabekeri erakutsi zaizten. Galdetu..... baña  
zertako galdetzen ari? Ondo dakigu gertatu ta  
gertatzen dana inork esan gabe.

¡Jaungoikuaren *kontrako* eskolak! ¿Eta zer da  
lurreko gizon au, zeruko Jaunaren kontra inda-  
rrak neurtu nai izateko?

¡Jaungoiko-*gabe*-ko eskolak! Baña..... Jaun-  
goikorik *gabe* gelditzen litzakian gizona, zer gi-  
zon ote litzake? Nork askatu, nork ebaki, nork  
ausi, nork eten, nork kendu ote lekizkiyo gizo-  
nari, bera Goiko-Jabiarekin loturik daukaten lo-  
turak? ¿Noiz egon da gizona lokarri oyek gabe?  
¿Egon ote liteke noiz edo noiz? ¿Egon ote liteke  
une laburrik laburrenien? ¡Ez! ¡Milla bider, ez!



¡Jaungoikuak egin baitu gizona; eta gizona Jaungoikuarena da! Zubek landatzen dezuten arbola zubena da, eta orren prutuba zubentzat. Zubek zeron lurrian ereiten dezuten arto, gari, arbiya, zubentzat dira. ¡Nekazariyak, langilliak, bere lana beria badu, nola Jaungoikuak beriak izango ez ditu bere egiturak, bere obrak!

Jaungoiko ber berak ere, ta bere guzizko almenez, ez dezake legerik gabe, loturik gabe, utzi gizona. Jaungoikua gizona *egite* edo *ez egite*-aren jabe zan; gizonik egin nai izan ezpalu, ez zuben egingo. Bañan egitera jarri zan ezkeru, bere legia ipiñi biar ziyon, berekiño loturik gabe eziñ utzi zegikiyon; gizon orrek, nai ta ez, bere Egilliarekiñ ikuskizunak biar ditu; gaur, biyar, ta beti, an eta emen, nun nai, izan biar; Egilliak ere, Jaunak berak ere, lotura ori eziñ eten, eziñ kendu.

Nola esan zitzaizkion Jaunak gizon orri: *egin zaitut, izatia neri zor didazu, baña zor ori barkatuba dago, ezer eskatzen ez dizut, eskatuko ere ez; nai dezun aldera zuazkit, ez nitzaz beñere oroitu; askatuba zaude, loturik ipiñi nai ez dizut*. Jaunak bere indar, ta almentasun guziz orrelakorik ez dezake: Jaunak, eta Berak egindako gizonak alkarrekiñ erantzunkizunak badituzte, izango dituzte, eta inork inoiz eten ez litzakianak alere

Gizonak asnasa, biziya, len artutako izatez irautia, lengo bere Egilliandik dauka gaur eta izango du gero. Egille orren esku dirau eta iraungo du edozeñ gizonak. Au guziya onela dalarik nola berezi nai ditu gizona ta bere Jabia



¡Eskolik onena, gurasuena!

dotriña berri onek? Nola utzi nai ditu Ura alde batera eta au bestera? ¡Eziñ liteke!

Emenchen gure beeko lurr ontan ere aita batek bere semiarekin, semiak bere aitarekin, seme ta aita, aita ta seme izan biarko dute bizi diran artian. Aita batek bere semiari esango baliyo: seme, azi zaitut, eskolatu zaitut, nola bizi ederk; erakutsi dizut. Gaurdandik ordia alkarrekiñ ez gera biziko; ona nun dezun echian dan guziya, arzazu; neroni ezer gabe gelditzen naiz, baña nere lanetik biziko naiz; gaur edo biyar lanik eziñ egin dedala gelditzen banitz ere, ez nitzaz ardurik izan; gosiak illtzeko zoriyan ikusten banniñuzu ere ez kezkiak izan. Gaurdandik ez naiz zure aita, gaurdandik etzera nere semia; edozeñ tokitan arkitzen nazula, aita ezpaniñuzu bezela beste alde batera begiratu, ta utzi. Zerorri ondo bizi eta len aita izandu onetzaz ez oroitu, ez penik artu.—Esazute: Au ondo al litzake? ¿Seme orrek bere aitak esandakua entzun biar al luke? Gaur edo biyar bere lengo aita ura premiyan ikusten balu, ¿ez ote luke semiak arenganako ikuskizunik? ¿Utzi ote lezake gosiak illtzen bere aita? ez ote liyoke agurrik ere egiñ biar kalia, edozeñ tokitan arkitzen balu? Orañ au guziya guchi da, oso guchi gizonak Jaungoikuarekiko duben erantzukiya aderazteko; eta alashen ere izutzen zaituste, edozeñ izutzekua da ta, esan degun orrek. Emendik atera bada, emendik pentsatu zenbat geyagokuak izan biar duten Goiko Jaunaren eta gizonaren arteko loturak. *Gezurra da beraz*



*oraingo maisu berriyak dakarten dotriña; edoze-  
ñek daki dotriña ori egizko dotriñe ez dala.*

Liberalkeriya ta Errelijiyua alkarrri begira dau-  
de, onelashé: bata aserrez, bestia sosegu aundiz.

*Liberalkeriyak loturik eta mendetasunik nai ez  
du; liberalkeriyak gizona Jainkuaren lege guzti-  
yak utzita ikusi nai du. Liberalkeriyak diyonez,  
alkatiak bere alkatetza, gobernariyak bere go-  
bernuba, generalak bere soldaduak, ministruak  
eta erregiak Erridiya, Naziyua, maisubak beren  
eskolak, ibilli litzateke lurreko lege utsekin, go-  
ronz, zeruronz, Jaunaganonz begirik jaso ere  
gabe. Elizak, obispuak, obispo ori Erromakua  
dalarik ere, ez dute, liberalkeriyak diyonez, ikus-  
kizunik, erri ta erriyetako agintariyekin. Eliza  
elizetan. Alkate, maisu, ta agintari guziyak] be-  
rak gogo duten bezela. Erriko echia, konsejuba,  
eliza ez da; apaizak, obispuak, Erromako Aita  
Santubak beren elizetan beude; lurreko legiak  
eliz-legiekñ ikuskizunik ez dute.*

*Errelijiyuak, egizko errelijiyuak berriz, diyo:  
gizona beti ta nun nai Jainkuaren mende.*

Jainkuaren mende alkate danian, Jainkuaren  
mende gobernari, Jainkuaren mende ministro,  
Errege, Emperadore danian. Geishiago ere ba-  
diyo: gizonak gizon dalako Jainkuaren legia  
gorde biar badu, gizon orrek berak karguren bat,  
eginkizunen bat artzen badu, len zituben obliga-  
ziyoz gañera beste obligaziyuak, bere karguba-  
renak, artu ditu. Ezkondu bada, guraso izatera  
eldu bada, alkate egiñ badute, probinzi osuaren  
agintari bada, erreino zabal baten errege bada,

ez du noski bere eginkizuna len beziñ aisha be-  
teko. Gurasuak seme ta alabak ditu, alkatiak  
erriya, gobernariyak erri asko, Emperadore ta  
Erregiak oraindik geyago. Batak eta bestiak,  
eta bestiak, Jainkuaren amar mandamentubak an-  
che daramazkite; kalian badabiltza, kalian; men-  
diyetara iyotzen diranian, mendiyar; kochian,  
trenian, automobillian; egan badabiltza, egan di-  
juazen tokiyan. Neguba edo udara dala, gaba  
edo eguna, otz, epel, edo bero, Jainkuaren lege-  
tik, toki aldatze ta denbora pasatubak eta etor-  
kizunak, ezerk eta ezerk, ez gaur eta ez biyarko  
egunak, askatu litzake. Maisuba bada, eta eskola  
bat badu, eskola artará dijuaskiyon umiak sal-  
batu biar ditu, salbatzeko egiñala egiñ biar du;  
ori egiñ gabe bera salbatu ez diteke. Egiya era-  
kutsi biar du: au da, au izango da beti, maisu  
orren eginkizuna.

Orra zer diyon errelijiyak, orra zer liberalke-  
riyak. Badakit norbaitek beregan esango dubela:  
*liberalkeri guziyak* berdiñak ez dira, eta emen  
entzun degun ainbateko gordintasunik gabeko  
liberalak ezagutu izan ditugu. Nik erantzungo  
dizutet (iñork gezurtatzeko bildurrik gabe) *libe-  
ralkeriya bat dala*, bakarra dala, eta lenchiago  
esan dedan bezelakua dala. Baña zintzo aditu:  
liberal izatia ez dago errepublikano izatian, ez  
dago politika uts-utsez iritzi bat edo beste iza-  
tian. Izan diteke bat errepublicano edo nai dezu-  
ten guziya, politika legor-legor artzen badu; eta  
Goiko-Jaunaren lege-pian bizi nai badu, Jainkua-  
ren lege ori guziyaz gañ jartzen badu. Au, Jaun-



goikuaren lege au gorde beza, orri eutsi bizayo, ori austen duten beste lege guziyak kendu bitza, Jainkuaren legia lurreko legien gaindik ipiñi beza beti: zeruko lege orrekiñ ondo ez datozen lege guziyak bazterrera utzi bitza, eta..... ordu-ban..... liberala ez da, liberalaren izen utsekua baizik.


Bañan ori egiten ezpadu, eta lurra ta lurrekuak Jainkuaren legerik gabe erabilli nai baditu, liberala da; eta onelako liberalen artian batzubek epelchuak, eta bestiak beruaguak izan arren, ayek eta oyek batera dijuaz; liberalkeriya bakarra da. Chingar batek eta karobi aundi bateko subak berdiñak ez dirudite, baña karobiko suba, suba da, eta chingarrarena ere alashen da.

¡Zenbat bider sortu ote dira erreketak izugarriyak chingar batetik! Ez chikiya dalako uste izan chingarrari bildurrik etzayola izan biar. Gauza chikiyetatik oker aundiyak etortzen dira bai. Begira...

Erriren batian noiz bait bizi izan omenzan Matias tontua esaten ziyoten bat. Ezkonduba zan Matias au, eta bere gurasuak utzi ziyoten eche baten eta onen inguruko lur pishkacho batzuben jabe. Eche artanche bizi zan bere emaztiarekin.

Ontan agertu zan Ameriketatik zetorren dirudun bat. Diruba bai, baño nun bizitzerik etzeukan Indiano onek. Asi zan begiratzen nun agertuko ote zitzayon eche egoki bat egiteko tokiya eta, goguan sartu zitzayon Matiasena, bere lur ta guzi. Juan zan bada Matiasen echera: au egun





¡Nekazariyak, goizetik gaberá lurra-rekin ardallan  
zabiltzaten nekazariyak!

artan echian ez zan, bañan emaztia bai. Indianuak ezagutu zuben emaztiak ziyonez, senarrak, Matiasek, gogo guchi zeukala echia saltzeko. Alashen ere emaztia prestatu zuben, senarra zetorkiyonian, saltzera nola ere bait jarri zezala, ondocho pagatuko ziyola esanez. Matias etorri zan; emaztiak egiñalak egiñ zituben, eta biyaramonian eroslia ere berriro jua zitzayen. Matias atzera zeguan, eche ura gurasuetatik zetorkiyola, guraso ta aitonak, eta aitonon aitonak ere eta Matias bera anchen jayuak zirala esanaz: eta miñ eta miñ ematen ziyola andik atera biarrak. Indianua diruba iyuaz ta iyuaz zijuan eta echiak eta lurrak baliyo zuten alako lau eskeiñtzera irichi zan. Emaztiak berriz kiñuka Matiasi saltzeko ta saltzeko esaten ziyon, eta senarra beti gogor zezuala ikusiyaz, *tontoha* ta *eroha* asi zitzayon. Noizerebait Matias limurtu zan eta urrengo egunian eskribauba ekarri zuten. Matias orduban ere illun ta triste zeguan, noizian beñ barren barrindikako asnas batzubek ateriaz, alik eta bat batetan, jaunak echia saltzeko biyotzik ez det esan zuben arte. Ekiñ ziyon emaztiak, ekin ziyon eskribaubak, ekin ziyon indianuak eta guziyen artian zerbait zerbait bigundu zuten, baña bere azkeneko itza izan zan: eche ura saldu biar bazuben naiko zubela gerorako ere bera noizian beñ an sartzeko baimena eta artarako eche artan, gela batian edo beste, *iltzecho bat*. Indianuak eta eskribaubak parrari eman ziyoten galdetubaz zertarako nai zuben *iltze* ura. Matiasek erantzun ziyen zerbait andikanchen chinchilika jartzeko ta



¡Amonak chikitan erakutsitako egizko dotriñari eutsi!



jartzen zubena ikusteko. Ezarri zan paperetan ori guziya eta Matias gelditu zan diru askoz, lurrik eta echerik gabe, bañan Indianuaren eche artan *iltze baten* jabe.

Indianuak echia berritu zuben, Matiasek nai bezela iltzia jarri zan, eta ordukoz gauza bukatu zan. Urte pare bat igaro ta Matiasi iltzia ikusteko goguk eman ziyon. Juan zan, iltzechua ikusi, eta andikan chinchilik bere abark amantarrak utzi ditu, lashter berriz ayek kendu eta beste gauzen bat ayen tokiyan jartzeko. Onela bein, onela milla bider zebillen Matias egunez ez ezik, gabaz ere atia jo, iriki erazo, eta bere iltze ura ikusi biar zubela esanaz. Jakiña zan Indianua ta beriak asarretuko zirala eta batik bat beintzat Indianuaren emaztia. Matias ordia ez zan atzeratzen eta ez ere beretik ateratzen. Gogor ta gogor asi ziran bata ta bestiak; eskritura ikusi zan; Matiasi kendu nai zitzayon eche artako sarrera; eziñ ordia, *iltze ura* beria zuben ta. Gogaitu zitzayen erosliari ta bere emaztiari, eta nai ziyoten Matiasi artu erazo echia diruba biurtuta.

Oraiñ agertuko da Matias erua edo zintzua zan. Matiasek diyo bayetz, echia artuko zubela pozik baña dirurik geyenak aldegiñ ziyotela eta eziñ osatu lezakiala artutako guziya ez ezik artubaren erdiya ere. Berak ez izanakatik norbaiti kendu ta bederik erdi ori bilduko zubela; eta nola Indianuaren emaztia senarrari beti zirika ari bait zitzayon, Indianuak eta Matiasek eskritura berriya egiñ zuten; Matias lengo bere eche Indianuak berritubarekin, lur ta guzti, eta onek

emandako dirubaren erdiyarekin gelditu zan; eta Indiano gizarajuak, Matiasen iltze eskaerari parra egindako egun ura bizi zan asterano goguan astubaz, andik ostera Ameriketara alde egin zuben.

Ikasi ote genezake zerbait tonto onengandik?

Bayetz uste det nik, eta zuben ere orche nunnbait. Gure antziñako lege ederretan ez *besteren iltzerik* sartzen utzi. Ez dezala Matiasek edo inork ezer sartu. Guria guretzat. Ikusiya dago zer etorri litekian *besteri* danik eta pithiñena gurian ematetik.

Ikusiya dago, nekazari ta langilliak, ikusiya dago. Gauzik aundiyeñak, guchitik asi litezke, eta geyenetan... beti, alashen asi oi dira.

Utzi dizayegun oraiñ diabrubaren eskola oyeñ irikitzen, iriki nai dituztenei. Ikasi dezatela zuben seme ta zuben alabak, gurasuak ez dirala guraso, gurasuak ez dutela umiekiñ eta umiak gurasuekiñ eginkizunik; gizona bizi litekiala elizik gabe, meza ta sakramentu gabe, Jainkorik gabe; ikasi dezatela naziyoko bandera trapu zar bat dala, agintari ta soldadubak, juez ta gañerakuak, borrero batzuben besterik ez dirala; gizonak lokarrik gabe bizi biar dubela; ikasi ditzatela oyeñ eta oyeñ antzeko beste gauzik asko. Lashter mardarikatuko zaituzte zuben umiak, eta ondoren ill biarko dezute penaren penaz.

¿Zergatik elituke Euskallerriyak aukeratu biar bere umientzako eskola-maisubak? ¿Zergatik ez dira izango euskaldunak maisu oyeñ?

¿Zergatik emen, zergatik gure erriyetan sartu biar dute Andaluzitik, Galizitik, Kastillatik bi-

daltzen zaizkigun erakusliak? Badakizute zergatik?... Gu epelak, gu otzak, gu ajola gabiak, gu biyotz guchikuak geralako. Guk euskaldunen izenik merezi ez degulako. ¿Noiz... noiz esnatuko ote gera, oraingo ontan esnatzen ezpagera?

¿Zer egin biar genduke bada?

Nekazariyak, goizetik gabera lurrarekin arda-llan zabiltzaten nekazariyak! Langilliak, naiz besoz ta naiz buruz lanian ari zeratenak! Goguan eduki, ez inoiz aztu, Goiko Jaunak *Bera ederki ezagutzeko, eta Beregana bide seguruz jualeko* chokorik onenian ipiñi gindubela mendi tarte abetan Eskerrak beñ, eskerrak milla bider gure Jabiari; *eta eutsi, eutsi gaur ta gero, chikitandik ikasi genduben egizko dotriñari*; eutsi zubentzat, eutsi zuben semientzat!

Nekazariyak, langilliak: *euskera* da gure itz-kuntza gaur, *euskera* izan dedilla beti!

«Euskaldunak! ¡gure euskerari ziñez eutsi di-zayogun! ¡au galdu ezkeru gure sinispen-oiturak galdu dirala esan gentzake! ¡Euskeraz jay-uak, euskeraz ill gaitezen! ¡Ondoren datozenen-tzat euskera gorde dezagun.» (1)

Bai... Euskera eta *euskal oiturak*, Euskera ta *gurê lege garbiyak*, nai ditugu! Gaur oraindik dauzkagunak ondo gorde; kendu zaizkigunak berriro irichi! Gu nor bagera, ta guziyok, gu guziyok, batian gabiltzala, irichi gintzakiala seguru da Gabiltzan asmo batez, gabiltzan eresi batez, gabiltzan *batian* guziyok!

(1) Orkaistegi-ko P. A.-k, Lardizabal-en Testamentu zar ta berriko kondairaren oarpena.



¡Euskera ta euskerari dagozkiyon legiak bizi bitez!

Nekazariyak, euskaldun guziyak! *Eskola-maisu* arrotzekin kontu! ¡Euskaldunak Euskalerrriyan jayotako maisu zintzuak, edota berak aukeratuak biar ditu, ez bestek ekarriyak!


Kontu zuben *botuaz*, euskaldunak! *Botua* zuben baina baita, ez nagusiyarena..... *Boto-rik* ez nola nai eman! Gure erreljiyo ta gure legien alde arpegiya erakutsiko duten, eta beren egiñal guziya *bi* gauz oyen alde egingo duten gizonak aukeratu!

Albait Euskalerrriyan jayuak, beintzat lendazlandik zertsu diran dakizutenak!

Jaunak! Guk, Euskaldunak, Nagusi *bat* besterik ez degu... Jaungoikua! eta Beraren ordezkuak (dana bat da), eta Jainkuaren urrena, Euskalerrriya! ta gero,

Jaungoikuarekiko Españaia!  
gure antziñako legiekin.

*Axelaingo Nagusiya.*



Bergaran, Jaungoikorik gabeko eskolen kontra, izandutako batzarra.

Iltzen bazaara  
Ama Euskera, Euskaldunak  
jillak gera!

Zer ikusten det urruti artan  
Biotza pusketan joanik?  
Zer ekaitz illun ikaragarri  
Dator, ¡Euskaldunak! andik?  
¡Ai!... esatia, libre banuke,  
Esango nuke ¡bai!... pozik,  
Baña penetan bizi gaitian  
Supri dezagun ¡ishillik!...

Ishillik atzo, ishillikan gaur,  
Ishillik bigar ta etzi,  
¡Ishillik beti! kantatutzia  
Ez degulako zillegi,  
Ordu charrian, gure artian,  
Giñalako ¡ai! berezi,  
Anayak biar genduelarik  
Len, orain, gero, ta... ¡beti!

Naigabe pisu, legor-legor bat,  
Doakabe ark dakarkit,  
Negar egin nai, baña maikorik  
Bat bakarrik ez datorkit,  
Len ishuriyak ditut guztiyak,  
Dardar gorputza dabilkit,  
Eraso beltza badator, eta  
¡Euskal-erriya!... ¡Zabiltzkit!

Lengo oitura miragarriyak  
Zar eta maitagarriyak  
Gure aitonen aitonetatik  
Jaunak guri bidaiyak,  
Denbora juanik beti berriyak  
Beti chit arrigarriyak,  
Nora dijuaz? nola ta noizko?  
¡Au lotsa!... ¡anai maitiak!



Gure semecho eta aitonen  
Erdiyan gaude jarriyak;  
Ayek siaskan, oyek zerut'k,  
Guri begira guztiyak;  
Eta guk noronz geren begiyak  
Daukazkigu ipiñiyak?  
Zorigaiztozko lotarki batek,  
Dauzkigu oso ichiyak!

---

Euskal-erriko semiak: ¡esna!  
Alcha gaitian gaur bertan,  
Ara aurchuak, guri begira,  
Siaskacho otz-otzetan!  
¡Ama nun degu, ama euskera?  
Ara an chokuan, ¡penetan!  
Iltzen bazaigu, illak gera ta...  
¡Illak aurrak siasketan!

¡Bai gure Jauna!... ill bitez orain  
Ama ez ezagutzekotz,  
Gu bezelako esker gaiztozko,  
Seme charrak izatekotz,  
Gure Legia, ¡Paregabia!  
Oñperatzera jartzekotz,  
Berak galdurik, beren Amari,  
Biziya galtzen uztekotz!

Guk: gurasuak eta semiak,  
Gaurko Euskaldun erbalak:  
¡Zer erakusten diyotegu? ¡ai!  
¡Nun dira Euskal-oiturak?  
Eraso beltza badatorkigu,  
Azitzen datoz aurchuak,  
Oitura-on ayek badaramatzi  
Berekin ¡Ama gaishuak!

Gu: gurasuak eta semiak,  
Zentzu apurrik gabiak,  
Euskal-izkuntza eta oituren  
Galtzalle lotsagarriak:

¿Beriak ditu gure animak,  
Sekulako, lotarkiak?  
¿Etzaituzte gaur esnatu biar  
Amaren azken-antsiak?

.....

¿Ama juan zaigu!... baña umiak  
Emen gelditzen zaizkigu,  
Ai dira aunditzen, eta erasua  
Alheratzen datorkigu,  
Odei lodiyak, beltz-beltz egiñik,  
Argiya digute kendu,  
Eta dunbotsa turmoyarena  
Nunbaitik aditzen degu.

.....

Aur chiyi ayek gizon egiñik  
Biyurtzen zaizka aitari,  
¿Aita gaiztua! esan diyote,  
¿Utzi zeniyon Amari!  
Galdu gaituzu, zu galdu zera,  
Orain negarrak... ugari?  
Baxenekizun ¿aita gaiztua!  
Etziñala ondo ari.

.....

Aizia ere usteldu da, ta  
Eziñ arnaserik artu,  
Aita-semiak lurra jo dute,  
Nai baña; ¿eziñ! alchatu,  
Estutzen dira, aita ¿orduban!...  
Nai-tu semiak salbatu,  
Eta semiak, madarikatzen,  
Aita nai dute urratu!

Odeyak ontan lertzen dira ta  
¿Negarrez dago zeruba!  
Euskal-erriya izandu zana,  
Beltzez jantziya, ¿galduba!...  
Esker gaiztozko bere semia,  
Len gozoro bizituba,

Ill nai t' eziñ ill zorrotz batekin,  
¡Damubak arantzatuba!

.....

.....

Dizdiz chimistak, marru turmoyak,  
Orro itsaso ederrak,  
Estal ditzazu Euskaldun lurak,  
Etsaigo gaixtok galdubak;  
Adiyo oraiñ, agur betiko  
Atzekabe emenguak,  
Barkaturikan, Berarengana,  
Gora gaitzala ¡Jainkuak!

ANTONIO ARZAC Y ALBERDI.




Zer ikusten det urruti artan  
Biotza pusketan joanik?

Zer ekaitz illun ikaragarri  
Dator, ¡Euskaldunak! andik?







Jayo baño Ion, gure-Juan-Egillak galdetu izati badi atxi jayo naiko tuben, Baskalerriya uhkeratuko tuben, mendak tarle ospetan  
Jayo naitubela esango niyon.





